

Xabier Letona



DANI BLANCO

## Ez da biktimarik espetxeetan

**IPAR IRLANDAKO** biktimen familiek badituzte Euskal Herriko biktimek dituzten antzerako zauriak, baina horietako batzuk sendatze bidean daude, besteak beste eta arazoak arazo, haiei arreta eman dien bake prozesu bat abiarazi zutelako duela 15 urte. Egia, justizia eta memoriaren ikuspegitik esparru asko jorratu dituzte eta neurri batzuk oso bitxiak egiten dira Euskal Herriatik begiratuta, noiz eta Euskal Herrian joan den asteen hildako berri bat izan denean. Horietako bi neurri oso deigarriak dira.

Bata da immunitate mugatua-ren kontzeptua: hau da, Ipar Irlandako gatazkaren biktimak edo biktimaren familiek bide hau erabiltzeko baimena ematen dutenean, norbaitek deklaratu badu delituen batean parte hartu duela, hori ezin da bere aurka erabili auziperatzean. Horrela egia-ri atea zabaltzen zaizkio eta lortzen dute ezkutuan dauden auziak argitzea eta familien mina arintzea. Egia justiziari gailentzen zaio kasu honetan. Delitua eta zigorrarekin du zerikusirik beste neurriak: 1998a (Ostiral Santuko Akordioak) baino lehenagoko delituengatik zigortutako edozein pertsona ez da izango espetxean bi urte baino gehiago.

Zauriak apurka arintzera eta elkarbizitza erraztera bideratutako neurriak dira. Beste zauri asko ez dira inoiz sendatuko, berarekin eramane beharko du beti biktimaren sendiak edo lagunak edo biktimak berak. Beti. Ez dago hainbat zauri arinduko duen ez bake prozesurik, ez espetxe zigorrik ezta heriotza zigorrik ere. Zauria arindu bai, ezabatu ez.

Arintze hori bilatu izan balitz, agian Arkaitz Bellon ez litzateke biktima bat izango. Biktima? Baina Arkaitz Bellon ere biktima ote da? Eta zein biktima multzotan sailkatu beharko litzateke? Euskal instituzio nagusienetan, legebiltzarretan adibidez, jorratutako biktima sailkapenetan ez dago espetxeekin lotutako biktimarik, ez presoentzat ez istripuetan hildako senideentzat ere. Gehienera, presoen sakabanaketaren aurkako adierazpenak daude eta hauek Euskal Herriko inguruko espetxeetara hurbiltzeko eskaerak.

Zirrikietan gehiago arakata, egon daiteke tarterik, hala ere. Zera dio Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Zuzendari-tzak biktimez: “Esparru horretan, terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen ondorioz kalte larria jasan duten pertsonak dira biktimak. Heriotza izanez gero, senideak dira biktimak, ezarritako ahaidetasun-mailaren arabera”. Urratu ote dizkiote urte hauek guztietan bere giza eskubideak Belloni?

*Ipar Irlandan, 1998a baino lehenagoko delituengatik zigortutako edozein pertsona ez da izango espetxean bi urte baino gehiago*

Zerbait gehiago ere badago: iazko ekainean Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Mújica eta Juan Maria Uriartek giza eskubideen bortxaketaz (1960-2013) egindako oinarritzeko txostenean agertzen da espetxeetako atal bat, baina bi lerrotan argitzen da esparru horretan orain egin litekeena: “Giza eskubideak defendatzen dituzten erakunde ofizialek (batik

bat, Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak) bildutako gomendio eta zantzuen arabera, tratatu txar krudel eta iraingarrien salaketak ikertu eta zenbatu egin behar dira oraindik”. Beraz, badira salaketak, oraindik ikertu gabe daude eta ikertu behar dira.

Ez dago zalantzarik euskal gizartearen zati batentzat Arkaitz Bellon Espainiako espetxe politikaren biktima dela, baina hala ote da baita ere, adibidez, Eusko Legebiltzarrentzat? Baina zergatik biktima heriotza naturalez hil bada? Emango ote dio biktima ukiturik kale istiluetatik jasotako kartzela zigor desproporzionatuak (13 urteko espetxe zigorra)? Eta atxilo-aldian salatutako torturak? Bere heriotza 1000 kilometrorantz izateak? Berak salatutako espetxe funtzionarioen lau jipoiak ikertuko ote dira? Eta isolamendu une luzeak kontuan hartuko al dira? Emango ote dio biktima zantzurik baldintzapeko askatasunean egon behar zuenean kartzelan egoteak? EPPK-koak ez diren Espainiako beste 68.300 presoeta-

ko bat balitz, bere zigorraren 2/3ak edo 3/4a beteta zituenez, kalean legoke. Eta, batek daki, akaso kalean egonda ere hil egingo zen, kalean ere jende asko hiltzen da eta. Baina espetxean hil da, aipatu

testuinguru horretan. Biktima ote da orain arte eramane den espetxe politikaren aurka agertu diren guztientzat? Egia baldin bada Eusko Legebiltzarreko gehiengoak sakabanaketaren aurkakoa eta beste espetxe politika baten aldekoa dela, Bellonen heriotzaz ere zerbait esan beharko luke. Zer? Hara erronka. ■

